

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresa eta gure bezeroak momentu oro egongo dira komunikazioan. Alde batetik, aurrez aurreko harremana egongo da, produktua erosten duen kontsumitzailearen eta hau egiteaz arduratzen den langilearen artean. Beste aldetik, web-aplikazioen eta sare sozialen bidez komunikazio etengabea egongo da enpresako kideen eta bezeroen artean. Gure negozioan lan egiten duten pertsonen kualifikazioak eta izaerak bezeroen aurrean jarrera egokia izatera eramango ditu.



Enpresaren web orrialdea eta sare sozialak egunero eguneratuko ditugu, gure food- truck-a egun horretan izango duen kokapenaren berri emateko eta bezeroek jakin beharrekoa adierazteko, hala nola ordutegia, prezioa, etab.

